

# Abarrak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

## Blues maitale baten apustua

IZAN BADIRA interes ekonomiko eta turistikoak atzean izan gabe jaiotako jaialdiak, makrokontzertuen kulturatik aldendu eta gustuko musika eta maila handiko musikariak eskaintzea helburu duten jaialdiak. Hein batean, abiapuntu horri eusten dio oraindik ere Hondarribiko Bluesaldiak, eta hori du balio handiena. Nazkatuta zegoen Carlos Malles hondarribiarra, hain gogoko duen musika zuzenean entzuteko urrutira joan beharraz nazkatuta, eta talde horiek herrira ekarzteza erabaki zuen. Udalaren babesarekin, Blues Hondarribia Musika Elkartearen laguntzarekin eta ahalegin handiarekin, aurrera atera zen lehenengo edizioa. Jendearen harrera ona ikusita, Udalak diru gehiago jarri du ordutik, baina boluntario lanak oinarrietako bat izaten jarraitzen du.

Pasio eta talde lan horri esker entzun ahal izan ditugu uztailean Eric Sardinas, Robert Cray, Sharrie Williams, Zora Young edota Hondarribia Blues saria jaso duen Tail Dragger. Eta entzun ahal izan ditugu, aurreko sei edizioetan, Johnny Winter, Solomon Burke, James Cotton, Willie 'Big Eyes' Smith eta Pinetop Perkins, beste askoren artean –iaz zendu ziren azken biak-. Zaleen gozamenerako eta kuriositatez hurbiltzen garenontzako, aukera paregabea da bluesaren izen handiez –bluesaz oro har– gozatzeko. Giro berezia sortzen da, musika doinu tarteka malenkoniatsu tarteka biziek, tronpeta-solo luzeek, perkusio erritmoek, ahots beltz sakonek, bluesak duen estetika interesgarriak... Hondarribiko kaleak ziprizzintzen dituenean.

Doan eta aire librean, Bentako karpa handian dira emanaldi jendetsuenak, gainerakoak neurri txikiko agertokietan egiten dira, herrian barreiatuak. Apezpiku plaza da begikoen dudan lekua, Alde Zaharreko



Tail Dragger musikariak jaso du aurten jaialdiaren txapela, Bentan eskainitako kontzertuan.

eliza atzean. Xarma berezkoa du, eta aulkietan ez ezik, belardian eta karelean eserita, balkoitik adi edo harri-galtzadan gora paseoan entzun daitezke saioak, lasai ederrean, jendetzarik gabe.

Rockin' Blues Gospelaren printzesaren ahots indartsua, JW Jonesen gitarra erakustaldia, Huckleberry Finn boskotearen parranda giroa, Playing For Change bandaren estilo uztarketa izan ditugu aurten, besteak beste. Zazpi urteren ostean, mailaz gain esango nuke filosofia eta grina mantentzeko gai izan dela jaialdia, eta ez da makala.





**XORROXIN IRRATIA**

**BEHIKAKA.COM**

**ZOKETA MUNDIALA !!**

**uztailaren 29 an**

**ELIZONDOn**

**18:00etan**

**BOLETOAK 5 EUROTAN ESKURAGARRI!**

**☎ 948 581 374 · www.behikaka.com**